

## I. ERANSKINA

### II-IV ERANSKINETAN ADIERAZITAKO "SGIKERREKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN (1. TALDEKOAK)" LAN POLTSAK ZABALTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

#### **Lehena.- Helburua eta oinarrizko elementuak.-**

1.1.- Helburua.- Deialdi honen helburua da II-IV eranskinetan adierazitako "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan poltsak (1.Taldekoak) zabaltzea, UPV/EHUren aldi baterako premiak betetzeko.

1.2.- Oinarrizko elementuak.

1.2.1.- Hautatutako pertsonak beteko dituzte edo hutsik dauden lanpostuak, harik eta lanpostuok arauk agintzen duten bezala bete arte, edo unibertsitatean sortzen diren aldi baterako premiak. Betiere, beharrezkoa izango da kasuan kasuko lanpostua edo premiak asetzeko behar diren baldintzak betetzea.

1.2.2.- Kasu bakoitzean lanaldia eta ordainsaria izango dira deialdiaren bidez bete nahi den lanpostuari edo premiei dagozkienak.

1.2.3.- Lanpostuak kokatuta egon ahal izango dira UPV/EHUren edozein lokaletan, eta hiru lurralde historikoetako edozeinetan.

1.2.4.- Hautatutako pertsonak dagokien espezialitateko "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan poltsetan sartuko dira, bertan dagoen azken pertsonaren atzetik. Lan poltsak erabiltzean beti jarraituko zaio lan poltsak kudeatzeko arautegiari.

1.2.5.- Aplikatu beharreko arau orokorrez gain, lan poltsei buruzko akordioak ere aplikatu beharko dira.

#### **Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.-**

2.1.- Baldintza hauek bete beharko dira prozesuan parte hartzeko:

- a. Hamasei (16) urte beterik izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.
- b. Parte hartu nahi den dagokion eranskinean zehaztutako titulazioa edukitzea edo hura jasotzeko eskubidea ordainduta izatea. Horrez gain, eranskin bakoitzean adierazitako baldintza zehatzak bete beharko dira (II-IV eranskinak).
- c. Eskaria behar bezala bete eta aurkeztea, eta prozesuan parte hartzeko tasak ordaintzea, deialdiko hirugarren oinarrian zehazten den legez.
- d. Europar Batasuneko kidea den herrialderen bateko herritarra izatea; edo, Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenak direla bide, langileen zirkulazio askea aplikatzen den

herrialderen bateko herritarra izatea. Espainiako eta Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere parte har dezakete (zuzenbidez banaturik ez badaude), bai eta euren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere (ezkontideak zuzenbidez banaturik ez badaude), baldin eta ondorengook 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik goragokoak izan arren, haien pentsura bizi badira. Era berean, aurreko paragrafoetan jasota ez dauden atzerritarrek ere hartu ahal izango dute parte, estatu espainiarrean egoitza badute. Hautatuak izanez gero, pertsona horiek, kontratua sinatu baino lehen, egiaztatu beharko dute administrazioaren baimena daukatela kontratuko zereginak betetzeko.

- e. Egin beharreko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Edozelan ere, beti aplikatuko da Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorren testu bategina (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa). Lan poltsatik deituz gero, langileak gaitasun fisikoa eta psikikoa duela egiaztatu beharko du medikuaren ziurtagiria aurkeztuz edo osasun azterketa eginez. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da aldi baterako lan kontratua sinatzeko. Desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak gainerako lehiakideen baldintza berdinetan onartuko dira prozesuan, betiere egiaztatzen badute nahikoa gaitasuna dutela lan poltsari dagozkion lanpostuen zereginak betetzeko.
- f. Diziplina espedientearen bidez aldentuta ez egotea administrazio publikoetatik edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik, eta ebazpen judizial baten ondorioz desgaitasun absoluturik edo berezirik ez edukitzea enplegu edo kargu publikoak betetzeko, edo norbera aldentua edo desgaitua izan den funtzionarioen kidego edo eskalan sartzeko edo norbera aldentua edo desgaitua izan aurretik lan kontratudun gisa betetzen zituen eginkizunen parekoak betetzeko. Beste estatu batzuetako nazionalitatea dutenen kasuan, desgaituta edo pareko egoera batean ez egotea, eta diziplina zehapenik edo antzekorik ez izatea, bere estatuan enplegu publikora sartzeari eragozten dionik.
- g. Legezko desgaitasun edo bateraezintasun arrazoirik ez izatea.

2.2.- Baldintza horiek eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dituzte izangaiek, bateraezintasunaren inguruko baldintza —g) atalean aipatutakoa— izan ezik. Azken hori bete beharko dute aldi baterako lan kontratua sinatzen dutenerako, lanpostua betetzeko hautatuak izanez gero.

### **Hirugarrena.- Eskariak aurkezteko era.-**

3.1.- Eskariak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, bide hauetako bat erabiliz:

- a. Internetez, [Langileen Atarian](http://gestion-enplegu.ehu.es) inprimakia betez. (<http://gestion-enplegu.ehu.es>).  
Bide hau aukeratuz gero, eskatzaileak egiaztagiria eskuratu ahal izango du erreferentzia zenbaki batekin, bai eta tasak ordaintzeko ordainagiria ere.

b. Salbuespen gisa, Interneteko helbide honetan inprimakia eskuratuz eta betez: <http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>.

3.2.- Onartuak izateko eta probetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskariaren atal guztiak bete beharko dituzte, eta dagozkion tasak ordaindu. Eskarian adierazi beharko dute bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskariak aurkezteko epea amaitzen den datarako, oinarri horren bigarren atalean zehazten diren salbuespenekin.

3.3.- Eskariak aurkezteko lekuak:

Internetez aurkezten ez diren eskariak UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoren batean aurkeztu beharko dira:

UPV/EHUko erregistro bulegoen zerrenda eguneratuta dago UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2018ko maiatzaren 21eko Erabakian, UPV/EHUko Erregistro bulegoen zerrenda eguneratua argitara ematen duena.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: [http://go.ehu.eus/oficinas\\_registro.html](http://go.ehu.eus/oficinas_registro.html)

Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16. art.).

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek gerenteari zuzendu beharko diote. Helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntza, Biblioteka eraikina. 2. Solairua, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Modu elektronikoa bidalitako eskariak ez dira paperean ere aurkeztu beharko. Dena dela, eskatzaileak tasa ordaindu badu sistemak ematen duen ordainagiria erabiltzeke, ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.

3.4.- Tasak:

Tasa hauek ordaindu beharra ezarrita dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bateginean (1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, 2007ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.). Ordaindu beharreko zenbatekoa **22,57 euro** dira.

Deialdi honetako 2.1. c) oinarrian zehaztutako baldintza betetzeko, tasak eskariak aurkezteko epearen barruan (ikus 3.5 oinarria) ordaindu beharko dira. Hautatu nahi den hautapen prozesu bakoitzeko tasa bat ordaindu beharko da.

Eskaria Internetez aurkezten bada, tasak ordaindu ahal izango dira sistemak ematen duen ordainagiria Kutxabankeko edozein bulegotan aurkeztuta, edo erakunde horren kutxazainetan barra kodeen irakurgailuak erabiliz. Modu elektronikoa ere ordaindu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko ordainketa pasabidearen bitartez.

Eskaria eskuz eginez gero, harekin batera tasa ordaindu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko da. Diru sarreraren «kontzeptuan» jarri beharko da eskatzailearen NAN zenbakia, eta kasuan kasuko lan poltsaren izena. Tasa ordaintzeko kontu zenbakia paperezko eskari orriaren atzeko aldean azaltzen da.

Eskariak aurkezteko epean tasa ordaindu ezean, eskatzailea prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da epe gehigarririk emango tasa ordaintzeko.

Era berean, tasa bankuan ordaindu izanaren agiria aurkeztu arren, ezin izango da prozesuan parte hartu eskaria legezko epean eta eran ez bada aurkezten, aurreko ataletan zehaztu den bezala.

3.5.- Eskariak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, deialdia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.6.- Desgaitasunen bat daukaten hautagaiek hala adierazi beharko dute eskarian, horretarako egongo den laukian. Era berean, beharrezko badute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Egokitzapenak beharrezkoak direla egiaztatzeko, eskatzaileak desgaitasuna aitortzen dion agiri ofiziala eta behar dituen egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu. Dokumentu horiek onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen aurkeztu beharko dira, epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan.

Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4. art.), hau da, administrazioko organo eskudunak %33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

3.7.-Eskariarekin batera ez da aurkeztu beharko inolako dokumenturik, ez bada egokitzapenak eskatzeko eta tasak ordaindu izana egiaztatzeko aurkeztu beharrezkoa, aurreko atalean azaldu den moduan.

3.8.- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak apirilaren 27an emandako 2016/679 EB Erreklamenduko 13. artikuluekin bat etorrira (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko erreklamendua), honen bidez jakinarazi nahi dizut zure datuak helburu hauetarako erabiliko direla: hautaketa prozesua gestionatzea, eta deialdian zehaztutakoari jarraituz prozesuari lotutako eta prozesutik eratorritako egintzak betetzea.

Datuen tratamendua beharrezko da langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko prozesuak egiteko UPV/EHUK daukan lege eginbearra betetzeko, guztia oinarri hartuta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 33. artikulua (bitarteko langile funtzionarioak eta aldi baterako lan kontratadunak).

Interesatuaren eskubidea da: bere datu pertsonalak atzitzea; datu okerrak zuzentzeko eskatzea, edo ezabatzeko eskatzea, batez ere datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak bildu zirenean zeuden helburuetarako.

Egoera jakin batzuetan, datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango du interesatuak, eta halakoetan, bakar bakarrik gordeko dira erreklamazioak egikaritzeko edo aldezteko.

Egoera jakin batzuetan, egoera partikularra dela eta, eskubidea izango du, edozein unetan, datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko. UPV/EHUK datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo balizko erreklamazioak aldezteko.

Interesatuak bere eskubideak egikaritzeko, eskuragarri ditu eskari orriak gune honetan: <http://www.ehu.eus/babestu>;

Deialdi honetan zehaztutako prozeduran parte hartzean ulertzen da interesatua aipatutako horren guztiaren jakitun dela, baina, hala ere, informazioa eman ahal izango zaio oinarri hauetan jasotako eskari orri arautuarekin batera, eta informazio osagarria izango du eskura web gunean (<http://www.ehu.eus/babestu>)

## **Laugarrena.- Izangaia onartzea.-**

4.1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere **hilabeteko** epean, UPV/EHUKo gerentearen erabaki baten bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da UPV/EHUKen web orrian, administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean: <http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>

Baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioa jartzeko.

Epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo ezetsiko dira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara ematen duen erabakiaren bidez.

Interesdunak ez badu konpontzen, aipatutako epean, bera baztertzea ekarri duen akatsa, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 68.1 art.).

4.2.- Behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko epea amaitutakoan, hamar eguneko epean argitaratuko da onartutako izangaien behin betiko zerrenda. Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, UPV/EHUKo gerenteari, edo,

zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretako dagokion epaitegian.

4.3.- Prozeduran zehar epaimahaiak jakiten badu hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, baztertu egingo du hautagai hori prozesutik, aurretik hari entzunda, eta egunean bertan jakinarazi beharko dio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Zerbitzuari.

4.4.- Izengaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan datu hauek agertuko dira: izena, bi abizenak eta NANen lau digitu aleatorioki, edo, atzerriko hautagaien kasuan, pareko agiriarena. Horren helburu bakarra da fase bakoitzean prozesuaren publizitate printzipioa betetzea eta interesdunei jakinarazpenak egitea. Edozelan ere, datuen erabilera hau bat dator datu pertsonalen babeserako legediarekin.

### **Bosgarrena.- Epaimahaia.-**

5.1.- Epaimahaia gizonez eta emakumez osatua egongo da modu orekatuan. Epaimahaikideek gaitasun eta prestakuntza egokia izango dute.

Hiru kide izango ditu epaimahaiak: epaimahaiko burua eta UPV/EHUko administrazioak izendatutako bi kide; horietako bat idazkaria izango da.

Epaimahaiaren osaera gerentearen erabaki baten bidez argitaratuko da.

Epaimahaiak kide anitzeko organoen funtzionamendu arauari jarraituz jardungo du.

5.2.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa egonez gero, epaimahaiko buruaren botoak ebatziko du.

5.3.- Epaimahaiaren behin betiko erabakien kontra gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

5.4.- Epaimahaian, gainera, hiru ordezkari egongo dira. Horiek izendatuko dira titularrak izendatzearekin batera.

5.5.- Epaimahaia ezin izango da osatu, ezta aritu ere, ez badira bertaratzen epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezkariak).

5.6.- Epaimahaiko buruaren eta bere ordezkoren karguak hutsik badaude, edo kargu horietarako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, maila, antzintasun eta adin handieneko epaimahaikideek ordezkatuko dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren eta bere ordezkoren karguak hutsik badaude, kargu horietarako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, epaimahaiak gehiengoz aukeratzen dituzten epaimahaikideek ordezkatuko dituzte.

5.7.- Epaimahaikideak prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, eta UPV/EHUko gerenteari emango diote horren berri, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean daudenean (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

Era berean, egoera horietakoren bat gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege beraren 24. artikuluari jarraituz.

5.8.- Bermatu beharko da oposizio fasea gainditzen dutela probara aurkezten diren pertsonen %33k gutxienez. Beraz, hautaketa sistema ondo aplikatzeko eta oposizio fasea gainditu behar duten pertsonen ehuneko hori lortzeko, epaimahaiak, aurkeztu diren pertsonak nortzuk diren jakin barik, jaitsi ahal izango du proba bakoitza gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa, betiere kontuan hartuta probetan eskatu beharreko gutxieneko maila eta izangaiek erakutsitakoa. Gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa jaitea erabakiz gero, argitara emango du erabaki hori epaimahaiak.

5.9.- Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, hau izango da epaimahaiaren helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntza, Biblioteka eraikinaren bigarren solairua, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

## **Seigarrena.- Hautaketa prozesuaren garapena.-**

6.- Hautaketa prozesuak fase hauek izango ditu:

### **6.1.- Oposizioa**

Oposizio fasean honako ariketa hauek egin beharko dira:

**6.1.1.- Ariketa bakarra:** guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila.

Hautaketa prozesuan ariketa bat egin beharko da, gutxienez zero (0) punturekin eta gehienez hogeita (20) punturekin baloratuko dena. Bi zati izango ditu: bata teorikoa eta bestea praktikoa Gutxienez hamar (10) puntu lortu beharko dira proba gainditzeko.

Ariketaren zati bi saioa bakarrean egingo dira.

#### 6.1.1.1.- Lehengo zatia (teorikoa).

Ariketa hau idatzizkoa izango da eta test motako ehun (100) galdera erantzun beharko dira, gehi erreserbako beste hamar (10); galderak erantzun anitzekoak izango dira, eta dagokion lan poltsaren eranskinean (II-IV eranskinak) jasotako gai zerrendari buruzkoak izango dira

Ez da punturik kenduko okerreko erantzunengatik edo erantzun gabeko galderengatik.

Lehen zati honengatik gehienez hamar (10) puntu emango dira, eta gutxienez zero (0).

Zati honetako puntuazio totala lortzeko, gainditu dutenen zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira banaketa proportzional baten arabera, hau da, ehun (100) puntuko zuzeneko puntuazioa izango da hamar (10) puntuko amaierako puntuazioaren parekoa. Eragiketa horiek egingo dira izangaien izen-abizenak jakin barik.

#### 6.1.1.2.- Bigarren zatia (praktikoa).

Bigarren zatia kasu praktikoa bat izango da, epaimahaiak proposatutako hiruren artean aukeratuko dena eta prestatu beharreko gaiekin zerikusia izango duena. Dokumentazioko eta material espezifikoko erabilera posiblea izanez.

Bigarren zati honengatik gutxienez zero (0) puntu eta gehienez hamar (10) puntu emango dira.

6.1.2.- Epaimahaiak izendatuko ditu proben datak, orduak eta lekuak, eta iragarriko ditu EHU Taularen bitartez eta laugarren oinarriko lehen atalean aipatutako web orriaren bidez.

6.1.3.- Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu beharko ditu desgaitasuna duten eta hirugarren oinarrian zehaztu bezala hala eskatu duten pertsonentzat, izangai horiek gainerako aukera berberak izan ditzaten, betiere horrek probaren edukia desitxuratu barik, aldi baterako langileak kontratatzeko deialdi batek izan beharreko tramitazio arina moteldu barik eta lanerako eskatzen den gaitasun maila jaitsi gabe.

6.1.4.- Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie proba egiteko. Probara azaltzen ez direnak prozesutik baztertuta geratuko dira, ezinbesteko kasuetan izan ezik, betiere behar bezala justifikatzen bada eta epaimahaiari justifikazioa nahikoa iruditzen bazaio. Probarako deia egingo da EHU Taularen bitartez eta laugarren oinarriko lehen atalean aipatzen den web orriaren bidez



6.1.5. Izangaiek beren identitatea egiaztatzeko dokumenturen bat eraman beharko dute probara (NANa, pasaportearen edo gida baimena), eta epaimahaiko kideek edozein momentutan eskatu ahal izango diete agiria erakusteko.

6.1.6.- Probak euskaraz egin gura dituztenek halaxe adierazi beharko dute eskari orria betetzean. Antolaketa arintzeagatik, inork ez badu eskatzen probak euskaraz egitea, gaztelaniaz egingo dira.

6.1.7.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

## **6.2.- Merezimendu lehiaketa**

6.2.1.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da lehiaketa faserako merezimenduak aurkeztu eta egiaztatzeko.

Oposizio faseko behin-behineko emaitzen kontrako erreklamazioa aurkezten dutenek erreklamazioarekin batera merezimenduak eta haien egiaztatzeak aurkeztu beharko dituzte.

6.2.2.- Fase honetako kalifikazioa lortzeko —gehienez ere hamar (10) puntukoa izango dena— batu egingo dira merezimenduetako puntu guztiak, honako baremo honen arabera:

- a) Titulazio akademiko ofizialak, puntu guztiak batuko dira POLTSA BAKOITZARI DAGOKION ERANSKINEAN adierazitako eginkizunei lotutako merezimenduen baremoaren arabera (eranskinak II- IV)

Tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

- b) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Merezimendu hau baremo honen arabera baloratuko da:

frantsesa, ingelesa edo alemana:

- C1 edo gorakoa (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 3 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- B2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 2,5 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- B1 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 2 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- A2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1,5 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- A1 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

Balorazioa egiteko erabiliko dira Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez hizkuntza ez-ofizialetarako ezarritako mailen arteko baliokidetzak, Euskal Herriko Unibertsitateko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearena, hizkuntza ez-ofizialen baliokidetze taularen bitartez (2017ko maiatzaren 22koa) eguneratua.

Hizkuntza ez-ofizialen ezagutza egiaztatzeko, tituluaren fotokopiak aurkeztu beharko dira. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira. Ez da probarik egingo hizkuntza maila egiaztatzeko.

**6.3.- Euskara.-** Euskara merezimendutzat joko da, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretuaren arabera (86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa).

Honako puntuazio hau lortu ahal izango da, gehienez:

- 4. HE: 6 puntu.
- 3. HE: 4,5 puntu.
- 2. HE: 3 puntu.
- 1. HE: 1,5 puntu.

Hizkuntza eskakizunak baliozkotzeko, bi arau hauek aplikatuko dira: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena (41. artikulua), eta 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Hizkuntza eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko dokumentuak merezimenduekin batera aurkeztu beharko dira horretarako zehaztutako epearen barruan.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko, tituluaren fotokopiak aurkeztu beharko dira. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat izango.

6.4.- Lehiaketa fasea ez da baztergarria izango, eta fase honetan lortutako puntuazioak ez dira kontuan hartuko oposizio faseko ariketak gainditzeko.

6.5.- Merezimenduen eta euskararen behin-behineko puntuazioak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaituta eta erreklamazioak aztertuta (halakorik balego), puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

6.6.- Lan poltsan sartzen diren pertsonen **hurrenkera** erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: merezimenduen puntuazioa, euskarari dagokion puntuazioa eta oposizio faseko probaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. irizpidea: Emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste izangai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
2. irizpidea: oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
3. irizpidea: Merezimenduen lehiaketan puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
4. irizpidea: Merezimenduen lehiaketako atal bakoitzean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna, oinarri hauetan atalok agertzen diren hurrenkeran.

Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, zozketa egingo da, Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzura Sartzeko Arautegi Orokorrean esaten den legez

6.7.- Izangaiei eragiten dieten prozesuko ekintza guztiak web orrian argitaratuko dira, laugarren oinarriko lehen atalean esandako moduan. Jakinarazpenetarako jarraituko zaio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari.

### **Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-**

Hautapen prozesua amaitu ostean, epaimahaiak prozesua gainditu duten izangaien sailkapena egingo du, puntuazio totalen arabera, eta bakoitzak atal bakoitzean lortu duena zehaztuta. Gero, UPV/EHUko Gerentziari helaraziko dio zerrenda, prozesuen gaineko behin betiko erabakia har dezan.

Epaimahaiaren proposamenen kontra gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio UPV/EHUko Gerentziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lan poltsa bakoitzeko zerrendan honako xehetasun hauek jasoko dira:

- Poltsako kide guztien izen-deiturak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera zenbakia.
- Deialdi horretan parte hartu duten kideek baremoaren arabera lortutako puntuazioa.
- Euskarari eta hizkuntza ez-ofizialetan egiaztatutako mailak.

### **Zortzigarrena.- Gorabeherak.-**

8.1.- Epaimahaiak eskumena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian hartu beharreko erabakiak hartzeko, hautaketa prozesua modu egokian bete dadin.

8.2.- Hautaketa prozesu bat gaindituta lan poltsa batean sartzen direnek lan eskaintzetarako hobespenak zehazteko epe orokorra itxi ondoren lan poltsan sartzen diren momentuan zehaztu ahal izango dituzte hobespenok urte horretarako.

8.3.- Deialdia, oinarriak eta haietatik sortutako administrazio egintza guztiak inpugnatu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

8.4.- Deialdi honekin lotutako informazioa emango da UPV/EHUko Bizkaiko Campusa, AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntza, Biblioteka eraikina, 2. solairua, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

### **Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-**

9.1.- Lan poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak aurkeztu beharko ditu bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak, horretarako zehaztuko den epean.

9.2.- Ezinbesteko kasuetan izan ezik, adierazitako epearen barruan hautagaiak ez badu dokumentazioa aurkezten edo ez badu egiaztatzen baldintza guztiak betetzen dituela, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da automatikoki.